

“Gazteok sufritzen dugun prekarietatearen ondorioz lan-istripu bat izateko aukera bikoitzak ditugu”

- “2016an izan ziren lan istripuen %14,8a gazteek izan zituzten, biztanleria okupatuaren %10,4a soilik direnean” azpimarratu du Olabek.
- EGK-ko presidentak “lan arriskuen ebaluazioa genero-ikuspegi batetik egitea garrantzitsua eta beharrezkoa” dela nabarmendu du.

Gasteiz, 2018ko martxoaren 6a. Euskadiko Gazteriaren Kontseiluak (EGK) gazteon egungo egoera mahai-gainean jarri du: “prekarietatea gizartean orokorrean dugun arazo bat da, baina batez ere, gazteok sufritzen duguna”, azpimarratu du Maialen Olabek, EGK-ko presidentea. Izan ere, krisi ekonomikoak eragina izan badu ere, EGK-ko presidentaren esanetan “ez da faktore bakarra”. “2017ko laugarren hiruhilekoan 16 eta 29 urte bitarteko gazteen %15’1a langabezian zegoen. Egia da datua jaisten doala, baina kontratazio sistema ez da beti egokiena”, nabarmendu du Olabek. Era berean, mahai gainean jarri du gazteei eskaintzen zaizkien lehen aukerek ez dutela bizi-proiektua eratzea ahalbidetzen. “Asko bekak edo praktikak dira, horrek asko zailtzen du ikasketetatik lan mundura salto egitea”, salatu du EGK-ko presidentak, horrek dakartzan ondorioak aipatzeaz gain: “ez dago harreman zuzena enpresa eta langilearen artean, gazteek ez dituzte beste langileek bezain beste eskubide, behin behinekotasuna eta lanaldi partzialak ohikoak dira, soldata baxuak, prekarietatea, etab.”.

Eusko Legebiltzarreko Lan eta Justizia Batzordearen aurrean egindako agerraldian **lan-segurtasun eta -osasuneko prebentzio eta neurriei buruz EGKren ikuspegia azaltzea eta proposamenak egitea** izan da helburua. Olabek adierazi duenez, “prekarietate honen ondorioz, pertsona gazte batek lan-istripu bat izateko dituen aukerak helduak dituztenak bikoitzen ditu” Era horretan, EGK-ko presidentek azken datuak ezagutarazteko baliatu du aukera: “2016an izan ziren lan istripuen %14,8a gazteek izan zituzten, biztanleria okupatuaren %10,4a soilik direnean” azpimarratu du Olabek.

Euskadiko Gazteriaren Kontseiluak *Emantzipa... Zer?* Lantaldeak eta Enplegu eta Etxebizitza lan-arloak garatutako **protokoloa “lau aldiz aktibatu” behar izan du 2017an “beste hainbeste gaztek lan-istripuak izan dituztelako**. Zoritzarrez, bitan, langilea zendu egin zen”, salatu du EGK-ko presidentek. Horren aurrean, Olabek hainbat proposamen jarri ditu mahai gainean: bekak zein praktika kontratuak aztertzea eta lanpostu bat betetzeko erabiltzen ez direla bermatzea, ordu extrekin egoera txarrik ez sortzea, egindako lana kontratuan islatzea, bidezko soldatakeskaintzea bizi-proiektua ez hipotekatzeko, behin behinekotasuna eta lanaldi partziala arau ez izatea, lan arriskuen prebentzioari garrantzi gehiago ematea eta ikastaro eta formazioa gazteei ere heltzea, batez ere istripu-tasa altuak dituzten sektoreetan.

Politika publiko hobeak diseinatzerako orduan, Olabek informazio gehiago eta gaurkoratuagoa izatearen garrantzia azpimarratu du. Izan ere, Olaberen esanetan, “hainbat neurri zehaztu daitezke egoera hobetzeko, baina ez badira aurrera eramaten ez du ezertarako balioko. Hori horrela izan ez dadin, ezarritako neurrien jarraipena egitea gomendatzen dugu”.

Genero-ikuspegia lan osasunean

EGK-ko presidentek legebiltzarkideen aurrean izandako agerraldia probestu nahi izan du arreta berezia jartzeko emakume gazteen egoeran: “zaila bada lan munduan emakumea edo gaztea izatea, imajinatu bi faktoreak elkartzen badira”. Lan-segurtasunarekin uztartuz, Olabek mahai gainean jarri du “azken urteen gizonen istripu kopuruak behera egin duela eta emakumeena ez dela jaisten ari”. “Emakumeen egoera gutxi aztertzen da eta EGKtik garrantzitsua ikusten dugu lan osasunean genero-ikuspegia txertatzea, ezin baitugu ahaztu egoera askoz prekarioagoa dela”.

Olabek legebiltzarkideei eskatu die langileak genero-ikuspegi batetik formatzea eta lan arriskuen ebaluazioa genero ikuspegi batetik egitea.

Azkenik, **EGKren funtzioa gogorarazi die legebiltzarkideei**. “Ganbera honetan adostutako lege baten eskutik jaio ginen eta 30 urtez sortze-arrazoi horien ildotik egin dugu lan: gazteen, gazte-elkarteen eta erakundeen arteko interlokuzio eta zubi lana egitea”. Izan ere, Olaberen esanetan “lan handia dago gai honen gainean egiteko eta horregatik gazteriaren ikuspegia mahai gainean jartzea ezinbestekoa da, gizartearen parte gara eta badugu zer esan”.